

RASFF TXOSTENA

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK


ELIKAGAIAK

2013ko BIGARREN LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa
Jakinarazpenen jatorria
Kutsadura iturrien sailkapena
Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak
Aurreko lauhilekoarekin erkatzea


JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA

2013ko bigarren lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko 848 jakinarazpen izan dira. Horietatik 176 alertak izan dira (%20,5), 296 informazio-jakinazpenak (%35) eta 379 mugan egin diren ukapenak (%44,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **30a Txinakoak** dira eta jarraian **Turkia** dugu: kasuen % **17a. Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **16,5**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Marokok**, jakinarazpenen %**23,5** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil**ek da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **45,5**).

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2013ko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 848 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturriei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturriak	%
Kutsadura biologikoa	%27
Mikotoxinak/biotoxinak	%17,5
Hondakinak	%17
Iruzurrak	%9,5
Kutsadura kimikoa	%9
Metal astunak	%8
Produktuaren egoera higieniko txarra	%5
Kutsadura fisikoa	%3,5
OGMak	%3,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % **76**an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % **48** eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% **43,5**) kakahuetea **Txinatik** zetorren. Bigarren lekuan, **pistatxoak** (%**28**) eta bere jatorria **Turkia** (**63,5**%).

Kutsadura biologikoei dagokienez, **salmonelek** kutsaduren % **52** eragin ditu. **Salmonella sp** da talde honetako protagonista nagusia kasuen % **85**ean. Ikuiuetako hegaztiak izan dira produktu protagonista %51eko kasuetan, %85,5eko kasuetan Brasil jatorria zelarrik. Beste salmonelei dagokienez, % **13,5a Salmonella enteritidis** dagokio (oilaskoak eragin ditu kasuen % 81a eta %69ko kasuetan Europa izan da jatorria) eta %**1,5a Salmonella typhimurium** (oilaskoak eragin ditu kasuen % 100a, eta % 100ean Brasil izan da jatorrizko herrialdea).

Bestalde, **E.coli** dugu bigarren kutsatzaile nagusia: kasuen % **18,5a**. Inplikaturako produktuei dagokienez: **behi-haragia** (% **64,5**). *E.coli*k eragindako jakinarazpen ia guztiek **Hegoamerikako** jatorria zuten (%92,5a).

Hondakinei dagokionez, **pestizidak** %**79a** dira eta medikamentuak %21a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %**58**an eta gehienak (%**57a**) **asiarrak** dira.

Metal astunei buruz esan behar da **merkurioak** eragin dituela jakinarazpen gehien; zehazki, % **61**. Ezpata-arraina protagonista izan da %63,5eko kasuetan eta jatorria Espainia %46an.

ITURRIA	ZK.	AGENTEA	ZK. (%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK. (%)	JATORRIA	ZK. (%)
Mikotoxinak/Biotoxinak Kutsadura biologikoa	145	Aflatoxinak	110 (76%)	kakahueteak	53 (48 %)	Txina	22(43,5%)
	230	Salmonella sp.	119 (52%)	ikuiluko hegaztiak	48 (51%)	Brasil	41(85,5%)
		<i>Salmonella sp.</i>	101 (85%)	oilaskoa	13 (81%)	Europa	9 (69%)
		<i>S.enteritidis</i>	16 (13,5%)	oilaskoa	2 (100%)	Brasil	2 (100%)
		<i>S.typhimurium</i>	2 (1,5%)	behi-haragia	27(64,5%)	Hegoamerika	25(92,5%)
		E.coli	42(18,5%)	Ezpata-arraina	26(63,5%)	Espainia	12 (46%)
Metal astunak	69	Merkurioa	42 (61%)	barazkiak	66 (58%)	Asia	37 (57%)
Hondakinak	144	Pestizidak	114 (79%)	Ez da produkturik nabarmentzen			
		Botikak	30 (21%)				

AURREKO LAUHILEKOAREKIN ERKATZEA

- Kutsadura kimikoak eragindako jakinarazpenen kopuruak gora egin du (% 5etik % 9ra).
- Kutsadura biologikoak eragindako kasuen kopuruak gora egin du, %22,5etik % 27ra.
- Hondakinek eragindako jakinarazpen eta alerten kopuruak, berriz, behera egin du nabarmenki (300tik 144ra).
- Merkurioak jakinarazpen gehiago eragin ditu, 42tik 69ra.
- Brasil jatorria duten jakinarazpenen kopurua gora egin du, amerika jatorria duten jakinarazpenen kopuruanren ia erdia suposatuz.
- Amerika jatorria duten jakinarazpenen kopurua gora egin du (% 13,5etik % 19,5era).